

Jaun-andre agurgarriok, Imanol Epeldek Etxeparek bere garaian egindako liburuaren sarrera gaurko musikarekin uztarturik eskaini digu. Horrek, gure hizkuntzaren iturri zaharrari dariona oraindik ur berria dela erakusten du, eta, edonola ere, ur gozoa, egarria asetzeko adinakoa.

Euskararen egun handi honetan hona etorri zareten guztioi, agur, edo Etxeparek zioen bezala: goraintzi, bake eta osagarri (hau da, osasuna).

Aurten berriz ere Etxepare, gure lehen idazle ezagunaren liburua aurkeztera gatoz. Oraingoan haren euskarazko poemak nederlanderaz, suomieraz, polonieraz, errusieraz, georgieraz eta hebreeraz argitaratu ditugu, horrela Nafarroa Behereko, Garaziko, semeak adierazi zuen nahia betetzen segitzeko asmoz: *Euskara: jalgi hadi kanpora, jalgi hadi plazara, jalgi hadi mundura, habil mundu guztira* eta azkenik *jalgi hadi dantzara*. Horiez gainera, aurten Braille alfabetoan itsuentzako egindako edizioa ere aipatu beharra daukagu.

Hiru mende luzetan Frantziako biblioteka batean zokoratu eta erabat ahantzirik egon eta gero, Etxepare berriz ere gure artera itzuli da. Lehenik euskaraz, noski, baina bai eta munduko beste anitz hizkuntzatan ere. Horixe zen berak gura zuena, bere euskarazko bertsoak beste herrietan ere zabaltzea. Guk historian zehar munduko beste herrien literatura geureganatu dugu. Bidezkoa da, ordainez, geurea ere besteei eskaintzea; bestek ere euskararen berri izateko, munduko beste herriek ezagut gaitzaten, aspaldiko urteotan guregana bizitzera heldu diren jendeek bertoko berri nork bere hizkuntzan irakur eta dasta dezan.

Honetarako, zer esanik ez, eskerrak eman behar dizkiegu Etxepareren liburua mintzaira horietara moldatzen jardun duten itzultzaile guztiei, hau da, Wim Jansen, Hanna Lantto, Dorota Krajevaska, Salome Gabunia, Natela Sturua eta Mordechay Mishor jaun-andreei, guztiek egin dituzten itzulpen bikainengatik. Eta noski, gaur gure artera etorri diren lagunei ere: Ellen Elfrink, Joseba Ossa, Gotxa Todua, Irakli Akhvlediani, Dorota Krajewska, Rachel Fuks Feinstein eta Ander Cornejo, nork bere hizkuntzan eta idazkeran Kontrapas poemaren ahapaldi bana irakurtzera etorri direnak.

Azkenean, Euskaltzaindiaren idazkariari dagokionez, esker oneko aipamen berezia egin behar diot Eusko Legebiltzarrari, bere ohiko politika-zereginenez gainera, honelako ekitaldiok bultzatzean gizarte eta kultura arloez ere ongi arduratzen dela erakusten digulako.

Eta besterik ez, jaun-andreok. Dantzugun orain nolako soinua duten Etxepareren bertsoek beste hizkuntza horietan.

Xabier Kintana